

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMO, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2007.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Administrazioaren 2007ko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, zeinak Erakunde Autonomoak, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak eta EA Eren partaidetza % 50ekoa baino handiagoa duten Sozietate Publikoak besarkatzen baititu. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik hiruk desadostasunezko boto partikularra egin duten.

Lanaren mamia izan da Osakidetza Erakundeak diru publikoen kudeaketan indarreko legedia zein mailatan bete duen egiaztatzeko azterketa mugatua egitea eta inbertsioak, ondasunak eta zerbitzuak eta langileria kontratatzean legezketasuna bete izanaren azterketa mugatua egitea bi enpresa erakunde publikotan eta bederatzi enpresatan:

- Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
- Eusko Trenbide Sarea entea
- EJE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, SA
- Euskal Telebista, S.A. (ETB,S.A.)
- Eusko Trenbideak, S.A.
- Itsasmendikoi, S.A.
- Neiker, S.A.
- Parke Teknologikoa.
- Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea, SA (SPRI, S.A.)
- Sprilur, S.A.
- VISESA

Epaitegiak txosteneko ondorioen atalean inbertsioak egin eta ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan batetik, eta langileen kontratazioen espedienteak aztertzean, bestetik, azaleratu diren akats nagusiak azaleratu ditu.

Sozietate publikoen eta enpresa erakundeen kasuan, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeak agintzen dituen eskakizunak betetzeari dagokionez azaleratu diren

hutsak ia gehien bat publizitate ezari dagozkio. Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Erakundearen kasuan prezio irizpidearen formulak eskaintza merkeenak zigortzen dituen kasuak azaleratu dira, edota Gobernu Kontseiluaren baimena ez dutenak. Berebat, Osakidetzaren artekaritza zerbitzuak jaulkitako txostenen ondorio nagusiak jaso dira eta hemen kasuistika zabalagoa da, izan ere, Erakundeak legezkotasuna betetzeko betekizun handiagoak baititu; honela, bada, kontratuaren xedea zatikatzeagatik publizitate eza izan duten kasuak azaleratu zaizkigu, esleipen hartzailearen eskusibotasunaren justifikazio eza edo esleipenean erabilitako baloraketa irizpideen eta Pleguetan jasotakoen artean izandako aldeak, besteak beste.

Sozietate publikoek langileen kontratazioa nola gauzatu duten berrikustean azaleratu da hainbat hautaketa prozesu ez direla berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzea bermatuta izapidetu.

Osakidetzari dagokionez, langileen alorrari dagozkion ez-betetze adierazgarrienak izan dira 44 kasutan goragoko mailako eginkizunak gauzatzea kontzeptua erabili izana egiturazko egoerak bideratzeko, ez –aurreikusia dagoen moduan- unean-uneko egoeretarako. Batzuetan, gainera, ez da kobratzeko eskubidea egiaztatu.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri txertatu zaizkio eta desadostasunezko boto partikularra osotasunean.